



RIAÑO ETA 'ZILI' TXAPELKETATIK KANPO

Hiru leitzarretatik 'Luze'k bakarrik lortu du Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalaurrekoetarako txartela >4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteartea
2010-02-09**

VIII. URTEA 1.923. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Zumalakarregi kalean, Zuloaga auzoan, Bedaion, Andre Mari plazan eta Musika Eskolan egingo dituzte lanak. I. TERRADILLOS

OINEZKOAK NAGUSI ZUMALAKARREGIN

TOLOSA Bost proiektu gauzatzea aurreikusi du Udalak Espainiako Estatu Fondotik jasoko dituen bi milioi euroekin 2

Inoiz baino jende gehiago mozorrotu da Inauterietan

LIZARTZA Ijitoa errez agurtu dituzte aurten ere «oso arrakastatsuak» izan diren jaiak 5

laz baino askozaz haur gehiago Sendi Ekintzaren krosean

IBARRA Jende asko gerturatu zen Elkartaren jaira; Eli Nosellas ere omendu zuten 5



Errotaren parean atera zuten argazki ofiziala. HITZA

Tolosaldeko Arraun Klubak 90 federatu fitxa inguru ditu

TOLOSA Herenegun egin zuen taldeak aurkezpen ofiziala; aurten bost mailatan ariko dira lehiak 6

Euskarazko Bakarrizketa Lehiaketa lehen aldiz

VILLABONA Aurkezten direnek 10 eta 15 minutu arteko bakarrizketa egin beharko dute 3



Tolosako inauterietarako
eskaintza berezia

angula kiloa 390€

arraindegia honen eskutik dator eskaintza:

ARTOLA arraindegia • Tel.: 943 674 406
Korreo 33 - TOLOSA

fiesta on guztioi!

Jasangarritasunera bideraturiko bost proiektu, E Planaren diru laguntzekin

Hirigintza » Bi milioi euro jasoko ditu Udalak; Zumalakarregi kalea oinezko egiteko baliatuko dute kopuru handiena.



Zumalakarregi kalea erdi oinezko jarriko dute. I.T.

INIGO TERRADILLOS

Ia 2 milioi euro izango ditu aurtan Tolosak Espainiako Toki Enplegu eta Jasangarritasunerako Estatu Fondotik edo E Plana bezala eza gutzen denetik. Diru laguntza horrekin bost proiektu gauzatu nahi dituzte Udaletik: Zumalakarregi kalea oinezko egitea, Zuloaga auzoan irisgarritasuna hobetzea, Bedaio auzoko Nagusi Etxe egokitzea, Andre Mari plaza egokitzea eta Musika Eskolan energia aurrezteko gailuak jartzea.

Pasa den urtean 3.165.966 euro egokitu zitzaizkion Tolosari Espainiako Estatu Fondotik. Aurtan, beraz, murriztu egin dute diru laguntza; hain zuzen ere, 8.000 milioi euro bideratu zituen Espainiako Gobernuak udaletxeetako proiektuetara, eta aurtan, 5.000 milioi. Murriztapenaz gain, bada beste aldatetarik, izan ere, iaz ez bezala, aurtan udalak dagokien diruaren zati bat gizarte eta hezkuntza zerbitzuetara bideratzeko aukera dute. Tolosaren kasuan, 1.934.473 euro dagokio, eta

387.670 euro bideratuko dute gizarte eta hezkuntza zerbitzuetara. Gainerakoa, hau da, 1.546.803 euro bost proiektuak burutzeko baliatuko dute.

Zumalakarregi kalean proiektu nagusia

Proiektuetan iaz udalei baldintzarik jartzen ez bazitzaie, aurtan, jasangarritasun eta irisgarritasunarekin loturikoak izan beharko dute. Hala, Tolosak proposatu dituen bost proiektuetatik aurrekontu handiena duena Zumalakarregi kalea erdi oinezko egitea da. Batetik, espaloia eta errepeidea maila edo altuera berean jarriko

dituzte, eta autoak aparkatzeko leerro bat utziko dute; bestetik, azpialdean instalazioak berrituko dituzte, gasarenak ez beste guztiak. Martxoaren amaieran lanekin hasia espero dute, eta 876.525 euroko kostua izango du.

Aurrekontuari dagokionez bigarren proiektu handiena Zuloaga auzoan irisgarritasuna hobetzea izango da. Igogailua jarriko dute «goialdean geratzen diren etxebizitzetara auzotarrek erraztasunez igo daitezke». 321.409 euroko kostua izango dute lanek. Bestalde, Andre Mari plazaren zorua aldatu nahi dute, eta horretarako 194.493 euro bideratuko dituzte.

Bedaion, berriz, Nagusi Etxe egokitu nahi dute. Pasa den urtean erosi zuen Udalak eraikina, eta auzotarrek erabil dezaten zaharberri nahi du. 90.000 euro baliatuko dituzte horretarako. Azken proiektua Musika Eskolan izango da. Bertan energia aurrezteko gailuak jarriko dituzte, eguzki panelak edota presentziazko detektorak esaterako. Proiektu honetarako Tolosaldeko Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuko ikasleek eginiko lana hartu dute kontuan. 64.294 euroko aurrekontua izango dute lan horiek.

«Guztien artean adosturiko proiektuak»

Atzo egin zuten bost proiektuen aurkezpena Tolosako udaletxean. Jokin Bildarratz Tolosako alkateak «Udaleko alderdi guztien artean adosturiko proiektuak» izan direla nabarmendu zuen. Halaber, proiektuak proposatu aurretik bizilagunekin bilerak ere egin dituztela euren beharrak ezagutzeko azaldu zuen.

Eako Onintza Lasak, bere aldeetik, garrantzia eman zion denen artean proiektuak adosteari, eta baita irisgarritasunari ere. Halaber, auzoak eta energia iturri berriak ere kontuan hartu direla aipatu zuen, «inbertsioa egin behar baita, baina orain egin dugun bezala,

» PROIEKTUAK

Zumalakarregi oinezko egitea

- **Aurrekontua.** 876.525 euro.
- **Lanak.** Kalea erdi oinezko bilakatuko dute, eta azpiko instalazioak berrituko dituzte.
- **Epea.** 4 hilabete.

Zuloaga auzoan irisgarritasuna hobetu

- **Aurrekontua.** 321.409 euro.
- **Lanak.** Igogailua jarriko dute goialdean dauden etxeetara igotzeko.
- **Epea.** 5 hilabete.

Bedaioko Nagusi Etxe egokitzea

- **Aurrekontua.** 90.000 euro.
- **Lanak.** Auzotarrek erabiltzeko etxea zaharberrituko dute.
- **Epea.** 3 hilabete.

Andre Mari plazaren zoruaren hobekuntza

- **Aurrekontua.** 194.493 euro.
- **Lanak.** Zorua aldatuko dute.
- **Epea.** 3 hilabete.

Musika Eskolan energia aurreztea

- **Aurrekontua.** 64.294 euro.
- **Lanak.** Hainbat gailu jarriko dituzte energia aurrezteko.
- **Epea.** 2 hilabete.

kontzeptua aldatuta». PSE-EEko Oscar Renedok, bestalde, egingo diren proiektuekin tolosarren bizi kalitatea hobetuko dela esan zuen, eta «alderdien artean egon den lankidetzaz» nabarmendu zuen.

ERREDAKZIOA

Iristear dira. Bi egun besterik ez dira geratzen festari ekiteko, eta inauterizale oro etziko eguna noiz iritsiko zain egongo da. Lehenengo moztarok ikusi ahal izan dira, haur jaialdian, eta baita lehenengo txaranga doinuak ere kaldereroetan. Danbor hotsa ere entzungai izan zen herenegun, orduan egin baitzuten Triangulo plazan Inauterietako Haur Danborradaren entsegu nagusia.

Sarrerak erosten jendetza

Aurtengo Inauterietako aldatetako batek, Ostegun Gizenean zenen-plazara sartzeko ordaindu beharra izateak, aurkako hainbat jarrerak sortu ditu herritarren artean. Baita saltzeko moduak ere, izan

Bi egun baino ez zoramenerari hasiera emateko

ere, jendeak ilara luzeak itxaron behar izan ditu, eta askok adierazi dutenaren arabera, ez dute Leidorreko leihatila aipaturiko orduan zabaldu.

Udaletik azaldu dutenez, «segurtasun neurriengatik» ordaindu beharko da aurtan Ostegun Gizenean ere. 16 urtetik beherakoek euro bat eta gainerakoek 2 euro ordaindu beharko dute tendidorako, harmailetarako 2 euro eta palkorako 2,5. Hala, iaz 3 ikuskizun 3 euroan jarri bazuten, aurtan merkeago jarri dutela esan dute, hau da, 4 ikuskizun 4 euroren truke. Gaur eta bihar ere eros daitezke sarrerak 11:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 20:30era Leidorreko leihatilan.

Okerrak Udalaren jai egitarauan

Bestalde, Udaletik jakinarazi dutenez, eurek eginiko jaietako egitarauan hainbat datu oker ageri dira: Zezen suzkoa Ero Etxe elkarteak antolatzen duela ez du jartzen, Haur Danborradaren irteera lekua Geltoki kalea izango da, eta ez Santa Maria Plaza, eta txarangen txandak oker daude.



Goian, herenegun Triangulon eginiko Haur Danborradaren entsegua. Behean, atzo zezenatarako txartelak erosten. I.T.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Lan bila.** Gizonezko bat lan bila dabil: pertsona helduak zaintzen, baserriko lanak egiten edota beste edozertan lan egiteko prest dago bera. Interesa duenak deitu dezala telefono zenbaki honetara: 679 80 3870.

Haitik Europar Batasunari zor diona barkatzeko eskatu dute

Villabona » Ebk Zapatero Europar Batasuneko presidenteari zuzendutako mozioa aurkeztu zuen eta Udalak onartu egin du.

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak Ezker Batuak aurkeztutako mozioa onartu zuen pasa den astean. Bertan, Espainiako presidente den Jose Luis Rodríguez Zapaterori, Europar Batasuneko presidente gisa, Haitik Europar Batasunean, Munduko Bankuan eta Amerikako garapen bankuan izan ditzakeen zor guztiak barkatzea eskatzeko exiji-

tu diote. Era berean, Villabonako Udalak Zapaterori Haitik Nazioarteko Diru Funtzarekin eduki ditzakeen zor guztiak kentzeko eskaria egin diezaiola eta orain Haitiri ematen zaion laguntza ez dadila bueltatu beharrekoa izan eskatzeko eskaria luzatu diote.

Bestetik, Ezker Batuak Espainiako Gobernuako presidenteari Haitik Espainiarekin dituen zorrak kentzeko eskatuko diola adierazi du.

Mari Jose Sanchez zinegotziaren hitzetan, Haitin bizitzen ari diren egoera «benetan ikaragarria da eta beharrezkoak diren laguntzak bideratu behar dira herrialdea berterailtzeko».

Aurrematrikulazioa epea ireki dute

Zizurkil » Hilaren 12a da azken eguna datorren ikasturterako Pedro Mari Otaño eskolan izena emateko.

ERREDAKZIOA

Hilaren 12tik jada 2010-2011 ikasturteko aurrematrikulazio epea irekia dago Pedro Mari Otaño Herri Eskolan eta izena emateko azken eguna, hilaren 12a izango da. Bulegoko ordutegia goizean 09:30etik 13:00etara eta arratsaldean 15:00etatik 16:30era izango

da. Eskolako arduradunek esandakoaren arabera, kalitatezko irakaskuntza eskaintzen dute D eremuan, balore eta emozioen lanketa egiten dute, metodologi berritzaileak dute, talde interaktiboak dituzte, ingelesa 4 urtetik aurrerako umeei eskaintzen diete, ingelesa gela ere badute eta baita jolas leku ederrak ere. Bestalde, proiektu telematikoa, ordenagailuak gela guztietan, informatika gela, musika gela, psikomotritate gela, gimnasioa eta Loatzo musika eskola ere bertan daude. 2 urtetik 12ra jangela eta goiz eta arratsaldean haur txoko zerbitzua dituzte.



Ibilbide neurtutik, Inauterietara

VILLABONA » IV. Kultur Astean parte hartu eta lagundu duten guztiei «esker ona» adierazi diete Jesusen Bihotza Ikastolako arduradunek: «Mila esker batik bat, Guraso Junta, Urkamendi eta Zumbeltz Elkarteak, Kutxa eta La Caixa entitateak, Shepherd's garagardotegia, Tolosako Orte optika, Usabal Kiroldegia, Tolosaldea Sahararekin GKEa eta Villabonako Udalarari». Bestalde, Inauterietarako ikasle, irakasle eta gurasoak Ostegun Gizeneko eta Ostiral Meheko festak antolatzen ari direla argitu dute. HITZA



Anartz Iturbe proiektuaren bultzatzailea eta Maialen Abaigar Euskara eta Hezkuntza zinegotzia aurkezpenean. E. EZBIZA

I. Euskarazko Bakarriketa Lehiaketa ostiralean Gurean

Villabona » Gurea zinemari izango da 22:30etik aurrera eta sarrerak 5 euroren truke eskuratu daitezke.

ENERITZ MAIZ

Maialen Abaigar Euskara eta Hezkuntza zinegotziak eta proiektu garatzen ari den Anartz Iturbek aurkeztu zuten pasa den larunbatean Amasa-Villabonako I. Euskarazko Bakarriketa Lehiaketa.

Villabonako Udalaren laguntzarekin antolatutako lehiaketa eta helburu nagusiak euskarazko bakarriketa alorra sustatzea eta Euskal Herri osoan zehar aurkeztu ahal izango den lan-multzo bat osatzea dira.

Hasierabatean lanak jendaurrean bi gauetan taularatzea pentsatua bazuten ere, bakarriketagelearen ezintasunagatik egun bakarrean egingo dute, hau da, hilaren 12an, ostiralean, Gurea zinemari, 22:30etik aurrera. Sarrerak 5 euroren truke eskuratu ahal dira eta Villabonako Larrea, Kixubi eta Amasa okindegietan.

Aurkeztzen diren bakarriketa guztiak euskaraz interpretatuak izango dira eta gaia librea izango dute. Bakarriketak antzezleek beraiek idatziak edota beste egile batek eginak izan daitezke eta 10-15 minutu arteko iraupena izan behar dute.

Afaria berotzen joateko

Parte hartzaile guztiak aurretik izango den afaria ere gonbidatu dituzte: «Saioa baino lehen afaria izango da tentsioak askatu eta elkar ezagutzeko aukera izan deza-

ten». I. Euskarazko Bakarriketa Lehiaketan parte hartzen duten guztiek, hala ere, afariaz gain, sariak eskuratzeko aukera ere izango dute. Irabazleak 800 euro jasoko ditu, bigarrenak 450 euro eta bakarriketa originalena egiten duenak, aldi, 250 euroko saria eskuratu du.

Lehen edizio honek «uste baino erantzun hobe izan du. 10 lagunek eman dute izena, baina beraien beste konpromisoengatik hiru lagunek ezingo dute taula gainera igo», argitu du Iturbe antolatzaileak. Hauek dira jendaurrean

» LEIHA KETA

I. Euskarazko Bakarriketa

- **Parte hartzaileak.** Jon Plazaola, Ione Gorostazu, Porrotx, Xabi Barriola, Oskar Schwarz, Yon Martinez eta Olatz Etxeberria.
- **Non.** Gurea Antzokian.
- **Noiz.** Hilaren 12an, ostirala 22:30ean.
- **Sarrerak.** 5 euroren truke Larrea, Kixubi eta Amasa Okindegietan.

ariko diren zazpi lagunak: Jon Plazaola, Ione Gorostazu, Porrotx, Xabi Barriola, Oskar Schwarz, Yon Martinez eta Olatz Etxeberria. Antolatzaileek adierazi dute, parte hartzaileen bakarriketez gain, ezustekoak ere izango dira.

Eskualdeko lehena

Euskal Herrian mota honetako lehiaketa oso gutxi egiten dira eta eskualdean antolatzen den lehena izango da. «Ajustu berria eta polita da», argitu dute antolatzaileak. Euskarazko umorearen sorkuntza bultzatzea du helburu, izan ere, antolatzaileen hitzetan «herri honen bere buruaz eta euskaraz barre egiten ikasi beharra dauka». Anartz Iturbek adituen laguntza jaso duguztia prestatzeko eta garbi du «bigarren edizioa» ere izango dela. Epaimahaia euskararekin, antzerkiarekin eta umorearekin lotura duten pertsonen osatua egongo da. Lehiaketa formatua ez du gustuko, hala ere, antolatzaileak, baina momentuz «erarik errazena» dela dio.

Publizitate enpresa batek lan poltsa osatzeko KOMERTZIALAK behar ditu

Eskaintzen da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera.
- Baldintza interesgarriak.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autonomia izatea.
- Komertzial arloan esperientzia izatea.

Kontuan hartuko da:

- Publizitate komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Gipuzkoa eta Bizkaiko txokoak ongi ezagutzea.

Curriculum Vitae zehatza bidali
gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA

Riaño eta 'Zili' Nafarroako Bertsolari Txapelketatik at

Leitza » Miel Mari Elozegi 'Luze' berriz ozta-ozta libratu da eta pasa behar ziren hamabostetatik hamalagarren geratu da.

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean Garesen izan zen Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehen faseko azken saioaren ondotik Leitza Jose Luis Barberia *Zili* eta Diego Riaño txapelketatik kanpo geratu dira. Hurrengo pasadara 15 bertsolari bakarrik pasatu dira; *Zili* 354 punturekin 17. postuan geratu da eta Riaño berriz, 19. egin du 350 punturekin. Leitzarretatik Miel Mari Elozegi *Luze* bakarrik eskuratu du

finalaurrekoetarako txartela 363,5 punturekin, 14. sailkatu da leitzarretara.

Larunbateko saioa Estitxu Arozenak irabazi zuen. Txapelketan hiru urtez parte hartu gabe egon eta gero gogotsu itzuli da. Lehen faseko azken saioan finalaurrekoetarako sailkapen zuzena eskuratu zuen 407 punturekin.

Ikusmin handia zegoen aurtengo txapelketako laugarren azken-laurdenarekin; besteak beste, finalaurrekoetara zein bertsolari sailkatuko ziren erabaki behar zelako. Oso giro polita izan zen Garesko Udaletxeko ganbaran, 150 bertsotzale elkartu eta aretoa guztiz bete zelarik.

Taula gainean hiru lesakar, eta horien artean egoera oso diferen-



2008. urteko Nafarroako Bertsolari Txapelketan ere aritu zen 'Luze'. HITZA

» DATUAK

Lehen faseko azken saioko puntuazioa

- **Estitxu Arozena.** 407 puntu.
- **Eneko Lazkoz.** 386 puntu.
- **Xabier Terreros.** 382 puntu.
- **Jon Elizetxe.** 367,5 puntu.
- **Alazne Untxalo.** 333 puntu.
- **Ioar Tainta.** 318 puntu.

Datosen hitzorduak

- **Otsailak 20 (Etxarri-Aranatz).**

Julio Soto, Estitxu Arozena, Ander Fuentes *Itturri*, Xabier Terreros, Oskar Estanga eta Saioa Alkiza.

- **Otsailak 27 (Iruñita).** Iñigo Olaetxea, Xabier Legarreta, Julen Zelaieta, Iñaki Aleman, Iñigo Ibarra eta Miel Mari Elozegi *Luze*.
- **Martxoak 7 (Atarrabia).** Jon Barberena, Arkaitz Goikoetxea, Eneko Lazkoz, Oier Lakuntza, Jon Elizetxe eta Aimar Karrika.

teak: Estitxu Arozenak bitan irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa eta Ioar Taintarentzat, berriz, lehen parte-hartzea zen. Arozenak garbi utzi zuen kontutan hartzeko hautagaia dela, ofizioki egin zituen lanik borobilenak, bereziki zortziko txikian eta hamarreko txikian.

Alde handia atera zion bigarren sailkatuari, bakarkako ariketa ederra osatu zuen Eneko Lazkoz etxarriarrari. Hirugarren eta laugarren, Xabier Terreros eta Jon Elizetxe egin zuten eta horiek ere lortu zuten finalaurrekoetarako sailkapena.

Horiek horrela, finalaurrekoetan azken-laurden bakoitzeko irabazleak- Arkaitz Goikoetxea, Xabier Legarreta, Ander Fuentes *Itturri* eta Estitxu Arozena- eta hamaika puntuaziorik onenak pasa dira. Horiek batera, Julio Soto, Iñigo Olaetxea eta Jon Barberena zuzenean sailkatu ziren.

Miel Mari Elozegi *Luzeren* hurrengo hitzordua hilaren 27an izango da Iruñitan. Gizarte Bilgunean izango da saioa 17:30etik aurrera eta Iñigo Olaetxea, Xabier Legarreta, Julen Zelaieta, Iñaki Aleman eta Iñigo Ibarrarekin batera ariko da.

Garbitzaile batek erredurak jasan ditu

Tolosa » Mankomunitatek arduraz jokatzeko eskatu dute; produktu arriskutsuak San Blasen utzi behar dira.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Mankomunitateak zabor bilketaren zerbitzuaren noizean behineko erabilpen txarraren salaketa egin du. Otsailaren 2ko gauean, «zabor bilketa egiten ari zen langile batek erredurak ja-

san zituen». Dirudienez, kontenedore baten ondoan edukiontzi bat zegoen, azido edo produktu erregarriren batekin. Hori jasotzerakoan zauritu zen garbitzailea.

Kalteak saihestu nahian, Mankomunitatek mota horietako zaborrak Tolosako San Blas Garbigerara eraman behar direla gogorarazi dute. Zerbitzu hau doakoa da eta astelehenetik ostiralera zabalik egoten da, 09:00etatik 12:30era eta 16:00etatik 19:00etara. Larunbatetik berriz, 09:00etatik 13:30era.

Atxik jolas-joko-kirolari!, atxik herriari!



Euskal Herriko zazpi lurraldeetako kirolariek lehen mugarrira jarri dute Euskal Herria ofizialki ordezkatzeko ekimenean. 2009ko abenduaren 27an, Donostiako belodromoan, bost mila euskal herritarrek baino gehiagok bat egin zuten haiekin.

Egin dezagun bat guztiok!



Erosi **DVDa** otsailaren **13an** eta **14an**



HARPIDEDUNENTZAKO OHARRA:

Eskaeria egiteko, nahikoa izango duzu 943-30 43 45 telefonora deitzea.

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**



Inauterietako mahaija eska dezakezu!

- Entsaladak
- Plater konbinatuak
- Kazuelak
- Oilasko errea

ERROTA
taberna

Deitu:
943 248 489



Ijitoa erreta datorren urtera arte agurtu dira Inauteriak

Lizartza » «Aurten ere oso arrakastatsuak» izan dira Inauteriak eta «inoiz baino jende gehiagok hartu du parte mozorroekin».

ERREDAKZIOA

Bi asteburuko jaiak askorako eman dezake. Horixe pentsatuko zuten Lizartzako Inauterietako egitaraua ikusi zuten askok. Baina ohartu orduko, agur esan izan behar diote lizartzarrek mozorroen festari. Biharamuna, gauzak biltzeko eta balorazioak egiteko une izaten omen da eta antolatzaileek azaldu dutenez, «oso arrakastatsuak izan dira aurten ere jaiak».

Eguraldi kaskarra izan da baina «aurpegi ona jarri diogu». Antolatzaileek puska biltzearen arrakasta goraiatu dute lehenik; «urtez urte gehituz doa jende kopurua». Txantxoak eta dantzariak batera irten ziren eta «giro ezin hobea

sortu zuten, txantxarako gogoare euren eraman zuten». Aipatu gabe ez dute utzi nahi izan, bestalde, «baserrietan eginiko harrera eta Etxe Zahar baserriko gosaria».

Azken egunean ere jende ugari

Herenegun iluntzean erre zuten ijitoa, baina aurretik ekitaldi zeteriko egunaz gozatu ahal izan zuten Lizartzan eta oraingoan, gainera, eguraldi onak lagunduta. Bezperako euriak eta hotzak ahaztu eta goizean goiz, hamaiketako egin zuten plazan, meza nagusiaren ondoren.

Egurdian, dantzariak emanaldia eskaini zuten herritarren aurrean eta ondoren mahaiaren bueltan 350 lagun inguru bazkari-rako elkartu ziren. Bazkalostea alaitzeko ardura Iskanbila txaranga izan zuen. «Bi egunetan geratu gabe aritu dira, gorai patzekoa da euren lana», azaldu dute antolatzaileek. Bazkariarekin «beldur» ziren, «krisia dela-eta ez ote zen



Igandean ez ziren mozorro faltatu; herriko dantzariak ere ikuskizuna eman zuten eguerdi aldera. I. LAHIDALGA

jenderik azalduko». Baina ederki erantzun zioten herritarrek deialdiari.

Halaber, txekorria erretzen aritu ziren erretzaileen lana eskertu nahi izan dute festa batzordekoek. «Eta, noski, festa parte hartu duten guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiegu».

Ohi bezala, irudimenak eman ditu emaitza onak; animaliak, pertsonaia ezagunak, amonak, gurdiak, ... «Inoiz baino jende gehiagok hartu du parte gurdiekin eta mozorroekin». Urtero bezala, Luzea Saria ere banatu zuten antolatzaileek. «Oso zaila izan da aurten erabakia, mozorro landuak eta bereziak ikusi ditugulako». Baina bakarrak eraman dezake saria; hala, aurten, zazpigarren Luzea Saria Juan Manuel Balerdientzat izan da: «Oso berezia zen bere mozorroa, goizean txantxo eta arratsalde partean aldatu egin zuen, txiki-teroz; pertsonaia sartu eta antzerki eta guzti egin zuen».

Sari gehiago herritarrentzat

Beste bi sari ere banatu zituzten antolatzaileek. Ondoen aipandutako balkoiarena Xabier Iparragirek eraman zuen eta Inauterizale Heldenari saria Maria Esnaolarentzat izan zen, 94 urte dituen.

Beste urte batez lizartzarrek «bizi dugun egoera zaila izan arren, umoreaz dugulagaldi erakutsi dugu, bigunez behintzat berrenak hustu ditugu».

Euriak bustitako Sendi Ekintza Egun jendetsua

Ibarra » Gaztetxoan lasterketan iazko kopurua ia bikoiztu egin zen, 150 korrikalari inguruk hartu zutelarik parte.

ERREDAKZIOA

Bigarren urtez ospatu zuten Sendi Ekintza elkartearen Eguna, pasa den larunbatean. Eta, iaz bezalaxe, eguraldi txarra izan zen protagonista. Tolosako Udalak utzitako bederatzai haimakin karpa bat osatu zuten goizean plazan, baina «euriak itoginak eragin zituen eta hotzak babesteko ere arazoak izan genituen», elkarteko Juan Zubiak azaldu duenez.

Goizerako haur jolas ugari aurreikusita zituzten baina asko bertan behera geratu ziren. «Aulkien jolasa, lokotx biltzea, ... kanpoan egin behar genituen eta ezinezkoa izan zen». Hala ere, goizean izan zen ekitaldirik, eta «oso arrakastatsuak», gainera. Txixi Orbegozo margolariak haurrei aurpegiak margotu zizkien; ondoren, xaboizko burbuila erraldoiak egiteko aukera izan zuten. Azken honekin «oso gustura aritu ziren haurrak, busti eta guzti egin ziren, baina ez zitzaizkien axola».



«Oso arrakastatsua» izan zen xaboizko burbuilen jokoa. NL

Ateri une bat aprobetxatuz eltzetxoaren jokoa egin zuten karparen kanpoaldean eta «umeak oso gustura aritu ziren».

Egurdiko atsedenaldiraren ondoren, zortzi bikotek eskoba txapelketa jokatu zuten batetik. Eta, bestetik, txikienek krosa korritu zuten herriko kaleetan. «Jazko kopurua ia bikoiztu egin zen, 150 ume irten baitziren lasterketan; guztia ondo atera zen eta oso gustura gaude honekin».

Txokolatea eta bizkotxoa izan zen amaieran denentzat. «Gurasoak eta parte-hartzaileak batuta, jende dezente bildu ginen», argitu du Zubiak.

Ezusteko omenaldia

Eli Nosellasi

Festaren ardatza, txiriaren irekiera, iluntzean heldu zen. Sendi Ekintzak dituen kupelen bueltan Elkarteke kide ugarik dastatu nahi izan zuten sagardo berria, nahiz eta «beterano asko ez zen agertu festara». Luntxean ere «nahi baino jende gutxiago» zegoen.

Txiriaren irekiera aprobetxatuz, Eli Nosellasek, 9 urtez lehendakaria izan denak, ezusteko omenaldi hunkigarria jaso zuen: «Egindako lana eskertu nahi izan genion, oroigarri batekin». Jexux Mari Mujika aizkolariak ere bere omenaldia jaso zuen.

ANOETAKO HERRI IKASTOLA

- 2 urteko gela. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
- Kalitatezko hezkuntza euskalduna
- Eguneratua eta irekia
- Denen artean bultzatua eta zuzendua

Matrikulazio epea: Otsailaren 1etik 12ra

Matrikulazio Ordutegia:
© 943 65 46 13-65 29 32
9:00-13:00 - 15:00-18:00
anoeta@ikastola.net

Irurako Ikastola

- (2-12 URTE)
- Haur Hezkuntza
- Lehen Hezkuntza

“HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN”

Zilar kalea 4 - San Migel 5 • IRURRA - Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net



Errotaren aurrean jarri ziren TAKeko kideak herenegun argazki ofiziala ateratzeko; Zelai eta Asuncion Klinika dituzte laguntzaile aurten ere. HITZA

Gipuzkoako Arraun Federazioan fitxa tekniko gehien dituen taldea da TAK

Arrauna » Herenegun egin zuen talde guztien aurkezpena Tolosaldeko Arraun Klubak; 90 lagun ditu federatuta jada.

ERREDAKZIOA

Igandean aurkeztu zituen Tolosaldeko Arraun Klubak aurten lehian ariko diren taldeak. Aurten bost mailatan ariko dira lehian, dena, zortzi talde. Urtarrilaren amaieran hasi zuten denboraldia, Batelen Ligarekin. Bi jardunaldi jokatu ostean, orain atsedenalditxo bat egingo dute hilaren 20ra arte.

Aurkezpen ekitaldian, ohiturari jarraituz arraunlari guztiak elkarrekin jarri ziren Errotaren aurrean eta argazkia atera zuten. Ondoren, gauza bera egin zuten talde guztiak banaka. Jarraian, uretara atera ziren denak eta maila ezberdinen artean estropadak jokatu zituzten. Bestalde, *Ala* izeneko txalupa berria erakusteko ere aprobe txatu zuten igandeko ekitaldia. Honek hamar lagunentzako tokia du, eta gainean zutik ibiltzeko aukera ere ematen du, gainontzeko batek baino egonkortasun han-

diagoa baitu. *Ala* honekin, jende gaztea arraunera hurbiltzea nahi dute TAKekoek.

Ibaitik atera ostean, luntxa izan zuten arraunlariek eta bertaratu zirenek. Honez gain, zenbait sari ere zozketatu zituzten.

Presazuzgarriarekin, baldintza hobek

Xabino Alijostes TAK-eko lehen-dakaria gustura agertu zen presazuzgarriarekin. Berak azaldutakoaren arabera, honekin, bikoiztu egin da azalera nabigagarria. Lehen Adunara joan behar izaten zuten batzuk entrenatzera, eta orain Tolosan bertan egin ahal izango dute.

Alijostesen hitzetan, infantil eta kadete mailan, mutiletan, jende gutxiago egotearen arrazoietakoa bat ibaiarena zen. Izan ere, batetik kolektorearen obrak eta bestetik ur kopuru baxua, gazteek ezin zuten bertan aritu arraunean. Orain hori aldatu egin da.

Gipuzkoan fitxa gehien dituen taldea

Tolosaldeko Arraun Klubak, egun lehian dabilzanen artean, 90 fitxa federatu inguru ditu. Hor sartzen dira, arraunlariak, entrenatzaile-

ak... Hala ere, urtea aurrera doan heinean gehiago egiten dituzte. Jende asko beranduago hasten baita arraunean. Izan ere, TAKek hiru multzotan banatzen ditu arraunean dabilzanak. Alde bate-tik, aipatutakoak daude, hau da, txapelketetan ibiltzen direnak. Bestetik, sanjoanetako estropadetan ateratzen direnak daude, eta azkenik, aisiagatik, tartean behin ibiltzen direnak.

Tolosaldeko Arraun Klubaren xede handienetako bat da, ahalik eta jende gehien arraunera erakar-tzea. Hori dela eta, iaztik, nahi du-tenek izena eman dezakete eta tar-

» TOLOSALDEKO ARRAUN KLUBA

Mailak

- **Infantil-kadete neskek.** Hiru talde.
- **Infantil mutilak.** Talde bat.
- **Kadete mutilak.** Talde bat.
- **Gorengo mailako neskek.** Talde bat.
- **Jubenil mutilak.** Bi talde.

teka arraunean aritu. *Ala* ekartearen arrazoietakoa bat ere hori da, eta Inauteriak eta gero honen erabilera sustatzen ahaleginduko dira.



Aurkezpen ekitaldian estropada bat jokatu zuten. HITZA

Lagun Aro GCB eta Pau Orthez taldeak aurrez aurre izango dira Usabalen

Saskibaloia » TAKEk antolatutako norgehiagoka berezi hau; hilaren 17an 19:30ean izango da adiskide partida ikusgai.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako saskibaloitaldetik garrantzitsuenak, Lagun Aro GCB-k, adiskidantza partida bat jokatu du Pau Orthez talde frantziarraren aurka. Norgehiagoka hori Tolosan jokatu da, hilaren 17-an hain zuzen ere. Usabal kiroldegian dute hitzordua 19:30ean.

Egun horietan ACB Ligako Errege Kopa lehiatuko dela baliatuz, Lasoren taldeak Frantziako Ligako talde historiko baten aurkako norgehiagoka jokatu du, txapelketa erritimoa ez galtzeko intentzioarekin. Tolosako saskibaloitaldetako arduradunek herriko saskibaloitari beste bultzada bat eman nahi izan diote eta, eta horretarako partida hau Tolosara ekartzea lortu.

Partida honetarako, GCB nahiz TAKE-ko abonatuak sarrera doan izango dute. Gainontzeko adin nagusikoek, 5 euro ordaindu behar-kotuzte, 3 euro, 14-18-tik 18-rakoek eta dohainik 14-tik beherakoek.

Paco Sanchezen omenezko memoriala jokatu da Usabal kiroldegian

ERREDAKZIOA

Urtarrilaren 23an Paco Sanchezen omenezko hamargarren memoriala jokatu zen Usabal kiroldegian. 8 eta 12 urte bitarteko 240 haurrek hartu zuten parte jaialdian. Tolosaldea IKT, Fortuna (Donostia), Ordizia, Igartza (Beasain) eta Urtubi (Usurbil)-k hartu zuten parte ekitaldi jendetsu honetan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Kirol emaitzak

PILOTA

Binakako Txapelketa Nagusia

LEHEN MAILA
Bengoetxea VI-Otxandorena 18
 Xala-Zubieta 22

BIGARREN MAILA
Saralegi-Eskudero 22
 Arretxe II-Ibaizabala 14

Olazabal-Arruti 22
 Reteği Bi-Cecilio 9

Emakumeen Gomazko Paleta-ko Kutxa Sari Nagusia
 Etchelecu-Arozena 22
 Muneta-Serre 30

Euskal Herriko Txapelketa

KADETEAK
Eneko Labaka (Aurrera Saiaz) 22
Aurrera 1
Maiza-Elustondo 22
 Amurrio 7

JUBENILAK
Ibai Arratibet 22
 Erreka I 18
Urbietza-Zinkunegi 22
 Zaramaga 3

22 URTEZ AZPIKOAK
Alex Sukia 7
 Markina 22
Apeztexea-Biain 22
 Arkupe 19

SENIORRAK
Albisu 22
 Lapke 11
Igor Epelde 22
 Usansolo 10
Narbarde-Zubiri 14
 Danok Lagunak 22
Urbietza-Galarraga 21
 Zaramaga 2 22
Renobales-Telletxea 22
 Amurrio 8

Udaberi Txapelketa

KADETEAK
Galarraga-Otaegi 22
 Antiguako 20

JUBENILAK
Gorostidi-Zabala 18
 Azkoitiako 22

Egiguren-Galarraga 22
 Tartaloetxe 1
Labaka-Mujika 8
 Mundarro I 22

SENIORRAK
Perez-Mujika 10
 Lizardi Igeldo 22

Barandiaran-Mattin 13
 Beloki 22

FUTBOLA

Erregional Ohorezko Maila
Tolosa CF-Zarautz 2-2

SAILKAPENA
 1. Pasajes (44p.); 2. Zarautz (42p.); 2. Aurrera de Ondarroa (41p.); 4. **Tolosa CF (33p.)**

1. Erregionala Igoera Fasea
Amaroz-Miren Bihotz KE 3-9

SAILKAPENA
 1. Allerru (12p.); 2. Lengokoak KE (9p.); 3. Mariño (9p.); 8. **Amaroz (4 p.)**

Oiartzun-Intxurre KKE 1-1

SAILKAPENA
 1. Irun (13p.); 2. Mondragon (9p.); 3. Sto Tomas Lizeoa (9 p.); 7. **Intxurre KKE (4 p.)**

ARETO FUTBOLA

Nazional A Maila
Aretxabaleta-Lauburu KE 4-7

SAILKAPENA
 1. Zierbana (42p.); 2. Zalatambor Area 99 (40 p.); 3. **Lauburu KE (36p.)**

Nazional B Maila
Iturriondo-Trsp. Lakunza 4-3
Santurtzi-Laskorain Ikastola 1-2

SAILKAPENA
1. Laskorain Ikastola (42p.); 2. Concepto-Creatch (37p.); 3. Ale-rru Algeposa (36p.); 10. Transportes Lakunza (21p.)

SOKATIRA

Euskal Herriko Txapelketa

EMAKUMEZKOAK, 500 KILO
 1. Badaiotz (9 puntu); 2. Sakana (6 puntu); 3. Beti Gazte (3 puntu); 4. **Ibarra (0 puntu).**

GIZONEZKOAK, 640 KILO
 1. Abadiño A (9 puntu); 2. Ñapurrak (6 puntu); 3. Abadiño B (3 puntu); 4. **Ibarra (0 puntu)**

AIZKORA

Urrezko Aizkora 24:01"
Nazabal-Jauregi 23:16"

Zilarrezko Aizkora
Eneko Saralegi-Erdozia 14:54"
Kañameres I-Kañameres II 13:18"



Anjel Arrospide leaburuarra. I. OTEGI

SASKIBALOIA

Lehen Maila
Padura 83
Take Bidebide Ibizia 76

SAILKAPENA
 1. Bidegintza Cespa (12-4); 2. Padura (10-6); 3. Seky.es (9-7); 10. **Take Bidebide Ibizia (4-12).**

XAKEA

Gipuzkoako Taldekako Liga

3. MAILA
Tolosa-Ibarra A/Gros H 1,5-2,5
Tolosa-Ibarra B/Gros L 3-1
Villabona C/Gros I 4-0

SAILKAPENA
1. Tolosa-Ibarra A (16,5p.); 2. Villabona C (16 p.); Gros H (13 p.); 6. Tolosa-Ibarra B (7 p.)

Laskorain Ikastolak Inauterien hasiera Santurtzin ospatu du

Areto futbola » Lauburuk etxetik kanpo garaipen handia lortu du; Transportes Lakunzak galdu egin du asteburuan.

ERREDAKZIOA

Areto futbolaren Nazional A Mailan garaipen «erosoa» eta «ikusgarria» lortu zuen Ibarra Lauburu KEk Legution asteburuan. Aretxabaleta taldea «harrituta» gelditu zen ibartarren hasierako jokorekin eta laugarren minutuan Unai Labakak lehen gola lortu zuen Lauburu KErentzat. Minutu bat berandua, jokalaribetak, 0-2koa lortu zuen. Ondoren bigol gehiago etorri ziren eta 0-4ko emaitza ikus ahal zitekeen markagailuan. Etxekoen berrizteia ongi kontrolatu zuten Txubelen mutilek. Partida 4-7ko emaitzarekin amaitu zen.

Nazional B Mailan, Villabonako Transportes Lakunzak 4-3 galdu zuen Iturriondoren aurka. Laskorain Ikastolak berriz garaipen berritatu lortu zuen.

Laskorain, jaun eta jabe

Inauterien festa handia gero eta hurbilago dugun honetan, garaipen berritatu lortu zuen Ikastolako taldeak. Kaldereroen bihamurrian Santurtzira egindako bisitan, segundo bakarrean faltan Jon Canales Elolak sartutako gol bati esker, beste hiru punturekin etxeratu zen taldea. Partidaren eguna eta ordua jakitean, urizotuzko *kaldereta* bat burutik behera bota izanaren sentazioa izan zuten gure mutilek pasa den astean.

Igande goizean festa giroa atzean utzi eta Bizkaia alderako bide luzea egin behar. Sailkapenean kinka larrian egon arren, azken asteotan fitxaketa onak egin eta taldea asko sendotu duen Santurtziren aurka indarrak neurtzeko.

Partida intentsitate altuarekin hasi zuten bi taldeek. Santurtziarren defentsa larria atzean ipini zuten baina edozein momentutan presio ona eginez aurrera salto egi-

teko inongo beldurrik gabe. Ikastolakoek berriz, ohiko legez, kantxa erdian kokatu zuten Endikaren atea babesteko harresia. Lehen zati honetan defentsa erasoari gailendu zitzaion eta ez zen golik izan atsedendaldia iristeko 3 segundo falta arte, Ikastolakoen akats bat probestuz santurtziarrak aurreratu ziren arte.

Norgehiagoka itxura traktasa hartzen ari zela konturatu Jorje eta Javi bikoteak atsedendaldia, bere izenak dioten bezala, atsedent hartzeko erabili eta bigarren zati osoan presio gogorra egiteko agindu zuten mutilei.

Bigarren zatia Santurtziarren zelai erdian jokatu zuen. Ikastolakoek aurkaria euren atean sartuta izan zuten eta gol aukera franko sortu zituzten. Santurtziarren atezain gazteak ordea, horitxoen saiakera denak zapuztu eta kontraeraso arrisksutaren bat ere abiarazi zuten.

Baina dena ezin gelditu, Gilek bere motor berriko V-tec teknologia martxan ipini eta urrunetik egindako jaurtiketa bikain batek saretarako bidea hartu zuen zutoina laztanduz 10 minuturen faltan. Gol honek ez zuen partidako gidoia batere aldatu ordea eta bere horretan iritsi ziren azken segundotara.

Sei segundoren faltan Elola pregoilaria santurtziarren areako baloian kokatu zen, Landerrek alboko saketik baloia noiz pasatuko zain. Ez zen erreza, baino Landerrek loratutako baloia bikain kontrolatu, 3 aurkarien artean dantzan ibili eta buelta erdian txupinazoz berrain jaurtiki zuen Elolak. Aterako bidean baloia pasa zuen segundo erdian isiltasuna nagusitu zuen baina zutoina joz barrura egin zuen eantza egin zuen Ikastolakoen zorionak.

Ostegun gizeneko txupinazora itxaron gabe, Inauterietako ospakizunetan murgilduta itzuli ziren Santurtzitik, Javi *pasteleroa*, Jorje, Javi eta Imanol prestatzaileak, Endika, Beñat, Lander, Barriola, Elola, Gil, Murgi, Txiki, Alonso eta Ekhi jokalariek.

Tolosa-Ibarra A eta Villabona C xake taldeek mailaz igotzeko aukera dute

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan Gipuzkoako Ligako lehen fasea amaitu da. Tolosa-Ibarra bi taldeek etxean jokatu zuten, Donostiako Gros elkarte-ko talde banaren aurka. A taldeak 1,5-2,5 galdu zuen baina, hala ere, multzoko lehen postuan amaitu du eta goigera faserako sailkatu da. Jokin Mendia eta Aimar Intxaurrondok lortu zituzten etxekoen puntuak. B taldeak, aldiz, irabazi egin zuen bigarren aldir jarraian. 3-1 izan zen oraingoan, Unai Mendizabal, Mikel Muguruza eta Javier Herroren puntuak esker. Horrela, multzoko laugarren postuan amaitu dute eta igogera faserako sailkapen postuetatik kanpo geratu diren arren datozen urteetarako bide onean direla erakutsi dute.

Datorren astean igogera fasea hasiko da. Bertan, beste multzoetako talde hobereenen aurka ariko dira Tolosa-Ibarra A eta Villabona C. Lehen fasea ikusita, aukerak dituzte mailaz igotzeko.

T Telefonoak

Larrialdia. ((112))

OSASUNA.
Alegialdea. Osasun z.: 943 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.
 Medikua: 943 65 23 39
Asteasu. Medikua: 943 692423
Baliarrain. Medikua: 943 889003
Berastegi-Elduain.
 Medikua: 943 683361
Bidegoian. Medikua: 943 681134
Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411
Ikaztegieta. Medikua: 943 653329
Irura. Osasun zentroa: 943 690720
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Orendain. Medikua: 943 655595
Orexa. Medikua: 943 682228
Tolosa.
Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111
San Esteban: 943 006800
Gernikako arbol: 943 006900
Amarozko dispen: 943 672637
Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdia)
DYA: 943 672536
Gurutze Gorria: 943 674888
Villabona. Anbulat.: 943 006970
Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930
GARRAIOAK.
Renfe: 902 24 02 02
Donostiako autobusa: 943 361740
Tolosalde bus: 943 650621
Leitzarantz autob.: 948 221015
Taxia: 943 670420
Taxia (Leitza): 608 873016
BESTERIK.
Ertzaizta: 943 538820
Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858
Tolargi: 943 650016
Iurramendi egoitza: 943 670325
Tolosa gasa: 943 675320
Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Ikastaroa

■ **Tolosa.** Baserritar trajeak egiten ikasteko jostuntza ikastaroa hilaren 23tik aurrera Kultur Etxean, astearte eta ostegunetan 17:30etik 20:30era. Izena emateko idatzi info@ikastn.com helbide elektronikora.

Deialdia

■ **Ametzeta.** Hilaren 14 eta 15ean izango diren talai dantzetan parte hartzeko entsegua gaur izango da gazte lokalean 19:30ean. Antolatzailerak herritar guztiak animatu nahi dituzte parte hartzera.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Miren Gonzalez artista tolosarraren *Fiordoan trukean* erakusketa GKO Urban Art Galleryn. Koadroak beste gauza edo lan batzuentatik trukatzuz eros daitezke.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz I. Euskal Herria, 3. 943-67 09 15.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian eraztatiko esanen eta iritzien arantzukizunik.



Ikusmena zaintzen ikasteko tailerra

TOLOSA • Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolak orain aste batzuk egindako IV. Kultur Astearen baitan, *Ikusmen Osasunerako Heziketa* izeneko tailerra izan zuten Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek. Izan ere, behar baino gutxiago zaintzen dugu ikusmen osasuna. Ikastola-

ko arduradunen hitzetan «gustura» ibili ziren ikasleak eta ariketa «bitxiak» egiteko aukera ere izan zuten. Era berean, tailerraren amaieran Beatrix eta Teresa ikastaroko arduradunek ikusmena zaintzeko aholku interesgarriak eman zizkieten ikasleei eta baita irakasleei ere. HITZA

A Agurrak



Urte askoan!
Tio Joxe (Areso). Zorionak atzoko partez eta bazkaria kenduko dizugu!

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: _____ • N A : _____

• Lanbidea: _____ • Jaioteguna: _____

• Helbidea: _____ • Herria: _____

• P.K: _____ • Tel.: _____

• Posta elektronikoa: _____

• Kontu zenbakia: _____